



## OSASUN ARLOKO AKTIBOEN MAPA

### Jarduerak edo baliabideak inskribatzeko laguntza-gida

---

#### 1. Zer da aktiboan sistema?

Da plataforma bat, identifikatzeko eta partekatze osasunerako eta ongizaterako onak diren jarduerak edo baliabide komunitarioak. Osasun Komunitarioaren Aliantzak diseinatu du eta zenbait autonomia erkidegotan erabiltzen da. Osasun arloko aktibo bat da: “edozein faktore, betiere hobetzen badu osasuna eta ongizatea mantentzeko pertsonak, taldeak, komunitateak, herriak eta erakundeak duten gaitasuna, eta laguntzen badu osasunaren arloko desberdintasunak murrizten”. Aktiboan sistemari esker errazago identifikatzen eta ikusten dira baliabide komunitarioak eta errazago gomendatzen dira aktiboak osasun etxeetatik.

#### 2. Nola emanen dut izena aktiboan sisteman?

Osasun arloko aktibo bat inskribatzeko, izan jarduerak komunitario bat edo izan baliabide bat, nahitaezkoa da izena ematea hemen: [NOKB-Osasun arloko aktiboak Nafarroan](#). Posta elektronikoa helbide bat eta pasahitz bat bakarrik eskatuko zaizkizu. Behin izena eman ondoren, mezu bat jasoko duzu posta elektronikoa, eta hartan izanen duzu lotura bat zure kontua aktibatzeke. Gorde mezu hori, eskura izateko zure erabiltzailea eta pasahitza, noizbait horiek ahaztuz gero. Ez bazenu mezu hori jasoko, begiratu ez ote den gorde “spam” edo “mezu baztergarri” gisa, edo jarri harremanetan Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokiarekin ([oscn@navarra.es](mailto:oscn@navarra.es)).

#### 3. Zer jarduerak edo baliabide sartzen ahal dira aktiboan sisteman?

- **Jarduerak:** sartzen ahal dira profesionalak eta herritarrek edozein arlotatik (gizartea, osasuna, hezkuntza) Nafarroan egindako jarduketak komunitarioak, helburu dutenak komunitatearen osasuna eta ongizatea hobetzea ekintza komunitarioaren bidez (tailerrak, ikastaroak, jardunaldiak...).
- **Osasun baliabideak:** sartzen ahal dira komunitateak berak identifikaturiko eta aitorturiko elementuak, indartzen dutenak osasuna eta ongizatea mantentzeko edo hobetzeko pertsonen, komunitateen eta herrien gaitasuna (elkartek, kirol instalazioak, parkeak...).

#### 4. Jada emanen dut izena, nola sartuko ditut aktiboak?

Informazioa hiru pausotan sartzen da. **Nahitaez bete behar dira** \* ikurra duten eremuak. Ez erabili maiuskulak datuak sartzean, non eta ez den sigla edo akronimo bat.

##### 1. Baliabideari edo jarduerari buruzko informazioa:

Badira garrantzia berezia duten hiru eremu; horien arabera sailkatzen eta kokatzen dira jarduketak, eta arreta berezia jarri behar zaie: jarduerak helburu dituen pertsonen **adina, sexua** eta **lokalizazioa**.


“**Adina**” eremuan markatu jarduerak helburu duen adin taldetik hurbilen dagoena. Ez dagoenean adin zehatz bat zehaztua jarduerak baterako, markatu “herritar guztiak”.

“**Jarduerak helburu dituen herritarrei buruzko beste xehetasun batzuk**” eremuan, zehatzago zehazten ahal da nori zuzendua dagoen jarduerak, adibidez: “Lehen Hezkuntzako ikasleak”, edo “gaitasun kronikoak dituzten pertsonak”.



“**Jarduera mota**” eremuan bi jarduera mota erregistratzen ahal dira:

- **“Etenik gabeko jarduera”**: aukera hau hautatuko dugu baldin jarduera hori egiten bada eskaeraren arabera, hau da, gutxieneko pertsona kopuru jakin bat bilduz gero. Adibidez, erretzeari uzteko tailer bat gutxienez 6 lagun bilduz gero bakarrik egingen bada.
- **“Aldi baterako jarduera”**: aukera hau hautatuko dugu baldin eta jarduera zein datatan egingen den badakigu. Adibidez, sukaldaritza osasungarriari buruzko ikastaro bat, ostegunero egiten dena 2019/01/15etik 2019/06/15era (proiektuaren deskribapen osoa egiteko atalean jarriko litzateke jarduera ostegunetan izanen dela).

Garrantzitsua da ongi erregistratzea helbidea, alegia, jarduera non egiten den edo baliabidea non dagoen. Ez badakizu zein den kalearen zenbakia, pantailan beherago dagoen mapan klikatu eta jarri  sinboloa jardueraren edo baliabidearen kokapen zehatzean. Jarduera toki bat baino gehiagotan egiten bada, **“Gehitu tokia”** botoian klikatuta toki gehiago sartzen ahalko dira.

Lehen pantaila horretan, erregistratu nahi dugun jardueraren edo baliabidearen argazki bat ere igotzen ahal dugu; irudi horren neurriak izan behar du 300 x 300 pixel ingurukoa edo ez 600kB baino handiagoa.

## 2. Harremanetarako datuak.

Pantaila honetan harremanetarako datuak eskatzen dira eta onartu beharko da pribatutasun politika. **Posta elektronikoa eta telefono zenbakia** nahitaezkoak dira jardueren eta baliabideen arduradunekin komunikatzeko, eta edozein aldaketa jakinarazteko haiei. Interesa duen edonor jarduera horien antolatzailearekin harremanetan jartzeko ere garrantzitsuak dira.

Jarduera bat **“Aldi baterako”** gisa sartu baduzu, ziurtatu zuzen sartzen dituzula **jardueraren datak**; data horiek iraganik, jarduera “historikoa” kategoriara igaroko da eta aldaketa hori jakinaraziko zaizu zure posta elektronikora. Jarduerak aktibo jarraitzen badu, edo beste data batzuetan berriz egingen bada, **“Nire jarduerak”** atalean editatu eta eguneratu ahal izanen duzu, eta pasako da **“Aktibo”** kategoriara.

## 3. Berrespena.

Agertzen da sartutako informazioa, berrikusteko. **“Bukatu”** botoian klikatu aurretik, berrikus ezazu agertzen zaizun laburpena. Akatsen bat agertzen bazaizu edo irudia ez bada ongi bistaritzen, atzera itzultzen ahal zara **“Aurrekoa”** botoiaren bidez, eta akatsak zuzendu.

## 5. Zer gertatzen da jarduera edo baliabidea sartu ondoren?

Sartutako informazioa berrikusten du Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren Osasun Komunitarioaren Behatokiak, hura balidatzeko edo onesteko. Onetsiz gero, formularioan erregistratzerakoan emandako posta elektronikokoan jakinarazpen bat jasoko duzu, zeinetan adieraziko baitzaizu balidatua izan dela, alegia, onetsia. Une horretatik aurrera edonorentzat ikusgai egonen da web-orrian. Aktiboa sartzeko erabilitako e-maila eta pasahitzarekin erregistratuta, zure baliabideari edo jarduerari buruzko informazioa editatu eta aldatu ahal izanen duzu. Jarduera bat balidatzen denetik urte bete igarotzen denean, eskatuko zaizu hura berrikusteko eta, behar izanez gero, aldatzeko.

## 6. Nola lortu aktiboen sistemari buruzko informazio gehiago?

Edozein zalantza izanez gero, gurekin harremanetan jartzen ahal zara [oscn@navarra.es](mailto:oscn@navarra.es) posta elektronikoko helbidearen bidez, edo **848 42 55 82 / 848 42 33 57 telefonoetara deituta**.